Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko ekainaren 9a, asteartea — 107 — Martes, a 9 de junio de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZUMAIAKO UDALA

*Iragarkia*

Zumaiako Udala, 2020ko ekainaren 2an, 467/2020 alkate erabakiaren bitartez, ondorengo deialdia onartu du:

*Musika, antzerki edo dantza alorrean lan egiten duten elkarteei diruz laguntzeko 2020 urteko deialdia.*

*1. Xedea.*

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagoka erregimenean emateko modua arautzea, eta haien onuradun izango dira herrian musika, antzerki edo dantza arloan aritzen diren elkarteak, betiere irabazi asmorik gabekoak direnean.

Deialdi honek arautzen dituen laguntzak emango dira bai elkarteentzat beraientzat, bai elkarte-jardueraren xede diren kolektiboentzat prestatutako berariazko programak edo zerbitzuak aurrera eramateko.

Berdintasuna bermatuko da 4/2005, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeari jarraituta, zehazki, 25. artikuluan oinarrituta, kultura eta jarduerei buruzkoa oinarri hartuta.

*2. Onuradunak.*

Herriko elkarteak, musika, antzerkia edo dantza alorrean lan egiten dutenak, betiere irabazi asmorik gabekoak direnean.

*3. Eskaerak.*

Zumaiako Udalaren Kultura Sailak prestatutako dirulaguntza hauen deialdian ezarritako ereduaren arabera aurkeztuko dira eskaerak.

Arau-oinarriak eskuratzeko, agiriak eskuratzeko eta informazioa eskatzeko, jo helbide honetara: Zumaiako Udala. Alondegia kultur etxea. Erribera 23. edo kultura@zumaia.eus helbide elektronikoan.

Eskabideak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

*4. Aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskaerak dirulaguntza hauen deialdian ezarritako jarraibideen arabera aurkeztu beharko dira, eta eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Dirulaguntzaren eskaera normalizatua behar bezala beteta (I. eranskina).

b) Jardueraren memoria.

c) Diruz laguntzeko aurkezten den programari dagokion gastuen eta diru-sarreren aurrekontua (II. eranskina).

d) Elkarte eskatzailearen ordezkari edo arduradun den pertsonaren NANaren fotokopia.

e) Eusko Jaurlaritzako elkarteen eta entitateen erregistroko inskripzio ziurtagiria.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Anuncio*

El 2 de junio de 2020, por decreto de alcaldía 467/2020, se ha aprobada la siguiente convocatoria:

*Convocatoria anual 2020 de ayudas económicas para las asociaciones que trabajen en el ámbito de la música, el teatro o la danza.*

*1. Objeto.*

La presente convocatoria tiene por objeto regular la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, dirigidas a asociaciones que desarrollen su actividad en el municipio, en el ámbito de la música, el teatro o la danza, sin ánimo de lucro.

Las ayudas reguladas en esta convocatoria se concederán tanto para las propias asociaciones, como para el desarrollo de programas específicos o servicios dirigidos a los colectivos objeto de la actividad asociativa.

Se garantizará la igualdad en base a la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, concretamente respecto al artículo 25, en relación con la cultura y las actividades.

*2. Beneficiarios.*

Asociaciones del municipio que trabajen en el ámbito de la música, el teatro o la danza, siempre y cuando no tengan ánimo de lucro.

*3. Solicitudes.*

Las solicitudes se presentarán de acuerdo con el modelo establecido en esta convocatoria de subvenciones del Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zumaia.

Para obtener las bases reguladoras, obtener documentación y solicitar información, dirigirse a la siguiente dirección: Ayuntamiento de Zumaia. Alondegia kultur etxea, Erribera 23, o en la dirección de correo electrónico kultura@zumaia.eus.

La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa e íntegra de todas las condiciones recogidas en la presente convocatoria.

*4. Documentación a presentar.*

Las solicitudes deberán presentarse de acuerdo con lo que establece esta convocatoria, acompañadas de la siguiente documentación:

a) Solicitud de subvención normalizada, debidamente cumplimentada (anexo I).

b) Memoria de la actividad.

c) Presupuesto de gastos e ingresos correspondiente al programa para el que se solicita la subvención (anexo II).

d) Fotocopia del DNI de la persona representante o responsable de la asociación solicitante.

e) Certificado de inscripción en el registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco.

EK\CV GAO-I-2020-02518

f) Identifikazio fiskaleko kodea adierazten duen agiriaren fotokopia.

g) Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean betetzen direla egiaztatzen duen agiria, baldin eta eskaera orrian baimenik ematen ez bazaio Udalari halako datuak zuzenean lortzeko.

h) Beste instituzio eta erakundeetan egin diren dirulaguntza eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren dirulaguntzena (III. eranskina).

i) Zinpeko aitorpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, amaierako seigarren xedapenean arautzen duen ildotik (I. eranskina).

j) Elkarte edo entitatearen urteko gastuen eta diru-sarreren aurrekontua.

k) Hirugarrenari alta emateko datuak (IV. eranskina).

l) Proiektuan emakume eta gizonen ikuspuntua noraino kontuan hartzen den zehaztu beharko da (V. eranskina).

m) Euskararen tratamendua jardueraren hedapenean eta erabilera elkartearen funtzionamenduan (VI. eranskina).

Udaleko elkarteen erregistroan izena eman dutenek ez dituzte aurkeztu beharko d), e), f) eta k) puntuetan eskatzen diren agiriak.

*5. Eskaerak aurkezteko epea eta legua.*

Eskaerak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, edo telematikoki www.zumaia.eus egoitza elektronikoaren erregistro elektronikoaren bidez. Epea 15 egun naturalekoa izango da, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita. Epearen amaierako eguna igandea edo egun baliogabea balitz, hurrengo egun baliodunean amaituko da epea.

Egiaztatzen bada aurkeztutako dokumentazioa ez dagoela osorik edo dokumentazio horrek ez dituela betetzen oinarri hauetan adierazitako baldintzak, pertsona interesdunari eskatuko zaio akats formalak egutegiko hamar eguneko epean konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko. Adieraziko zaio, hori egiten ez badu, ezetsitzat joko dela bere eskaera, eta hura artxibatuko dela, bestelako tramiterik egin gabe, indarreko araubideak adierazten duen moduan.

*6. Aurrekontuko diru hornidura.*

Aipatutako dirulaguntzarako guztira 56.000 € banatuko dira oinarri espezifikoek diotena betetzen duten eskaintzen artean.

Horretarako 2020ko aurrekontutik ondorengo partidak erabiliko dira:

1 0300.481.334.01.01 2020 (440): Musika elkarteei dirulaguntzak.

1 0300.481.334.01.02 2020 (441): Musika ekintzetako beste dirulaguntzak.

1 0300.781.334.01.01 2020 (450): Musika tresnak erosteko dirulaguntzak.

*7. Eskaerak baloratu eta laguntzak nori eman hautatzeko irizpideak.*

1. Urtean zehar Zumaiako Udaleko Kultura Sailarekin eta beste elkarte batzuekin egindako elkarlana, koordinazioak, jarraipenak, proposamenak, informazio-trukatzeak: 8 puntu.

f) Fotocopia del documento acreditativo del código de identificación fiscal.

g) Si no se autoriza al Ayuntamiento en la solicitud de subvención para recabar directamente dichos datos, documento acreditativo de estar al corriente de las obligaciones, tributarias y de seguridad social.

h) Declaración sobre solicitudes de subvención realizadas ante otras instituciones y organismos o, en su caso, de las subvenciones otorgadas (anexo III).

i) Declaración jurada de no estar sancionada con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello. Estas prohibiciones incluirán las que se hayan producido por discriminación por razón de sexo, de conformidad con la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (anexo I).

j) Presupuesto anual de gastos e ingresos de la asociación o entidad.

k) Certificado de terceros (anexo IV).

l) Se reflejará el grado de incorporación de la perspectiva de igualdad de mujeres y hombres en el proyecto (anexo V).

m) Tratamiento del euskera en la difusión de la actividad y su uso en el funcionamiento de la asociación (anexo VI).

Las asociaciones inscritas en el Registro de Asociaciones del Ayuntamiento no tendrán que presentar los documentos mencionados en los puntos d), e), f) y k).

*5. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento o telemáticamente a través del registro electrónico de la sede electrónica www.zumaia.eus. El plazo será de 15 días naturales a contar desde el siguiente al de la publicación de estas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Si el día de finalización del plazo fuera domingo o día inhábil, el plazo finalizará el siguiente día hábil.

Si se comprueba que la documentación presentada no se encuentra completa o no reúne los requisitos señalados en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días naturales subsane los defectos formales o acompañe los documentos necesarios. Se le indicará que, de no hacerlo, se entenderá desestimada su solicitud y se archivará la misma, sin más trámite, en los términos que señala la normativa vigente.

*6. Dotación presupuestaria.*

Para la citada subvención se destinará un total de 56.000 € que se distribuirán entre las ofertas que cumplan las bases específicas.

Para ello se utilizarán las siguientes partidas del presupuesto de 2020:

1 0300.481.334.01.01 2020 (440): Subvenciones a asociaciones musicales.

1 0300.481.334.01.02 2020 (441): Otras subvenciones por actividades musicales.

1 0300.781.334.01.01 2020 (450): Subvenciones para la adquisición de instrumentos musicales.

*7. Criterios de selección y valoración.*

1. Colaboración mantenida con el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Zumaia y otras asociaciones a lo largo del año; coordinaciones, seguimiento, propuestas, intercambio de información: 8 puntos.

EK\CV GAO-I-2020-02518

2. Urtean zehar elkartean bazkide gisa, ekitaldietan parte hartzen edo bere jardueraren eragina izango duten pertsonen kopurua: 8 puntu.

3. Elkarteak urtean zehar herrian betetzen duen egitaraua edo egiten dituen jarduera zehatzak: 50 puntu.

Elkarteen egitaraua eta egiten dituzten jarduerak baloratuko dira oro har, baita Zumaian berariazko programak egitea eta herrian programa edo jarduera esperimental eta berritzaileak ezartzea ere.

4. Aurrekontua; kopuruak, sarrerak, izaera orekatua: 20 puntu.

5. Elkarteak urtean zehar herritik kanpo betetzen duen egitaraua edo egiten dituen jarduerak: 7 puntu.

6. Elkarte edo entitateak Zumaiarentzat aurreikusten dituen helburu orokorrak eta zehatzak: 7 puntu.

*8. Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz laguntzen diren jarduerak egiteko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira. Alderdi horri dagokionez, beti bete beharko da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

*9. Eskaerak aztertu eta baloratzea.*

Kultura teknikariari dagozkio kultura ekintzaren alorrean egiten diren eskaerei dagozkien oinarri orokorretan jasotako prozedurak.

*10. Erabakia.*

Instrukzio arduraduna izango da, aurrez Kultura Saileko balorazio batzordearen txosten teknikoa jaso eta gero, ebazpen proposamena egingo duena.

Erabakia hartzeko eskumena duen udal organoa Alkatea da.

Guztia gehienez 2 hilabeteko epean egin beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Aipatutako epea igaro eta gero, Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu gabe izango balu, erantzuna ezezkoa dela esan nahiko du horrek.

*11. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta hura ordaintzeko modua.*

Zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbateko osoak ezingo du izan, inoiz ere, bera bakarrik edo beste herri administrazio eta erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzekin batuta, onuradunak egin behar duen jardueraren kostuarena baino handiagoa.

Egitaraua edo jarduera garatzeko orduan, benetako kostua aurkeztutakoa baino gutxiagokoa baldin bada, onartutako dirulaguntza benetako gastuaren neurrian gutxituko da.

Urteko dirulaguntza kontzeptuan jasotako kopurua, behin betiko dirulaguntza erreala baino gehiagokoa izango balitz, diferentzia itzuli beharko litzateke.

Ordainketa.

Banku transferentzia bidez egingo da dirulaguntzen ordainketa, erakunde onuradunaren titulartasuneko kontu batean.

Dirulaguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 70 ordainduko da.

Gainerako % 30, jarduera amaitu eta dirulaguntza justifikatzeko memoria eta gastuaren egiaztagiriak epe barruan aurkeztu ondoren ordainduko da.

2. Número de personas integrantes de la asociación o participantes en sus actos, o que se beneficien de la actividad de la misma: 8 puntos.

3. Programa o actividades concretas desarrolladas a lo largo del año en el municipio por la asociación: 50 puntos.

Se valorará la programación y las actividades en general, así como la realización de programas específicos en Zumaia y la implantación de programas o actividades experimentales e innovadoras en la localidad.

4. Presupuesto; importes, ingresos, carácter equilibrado: 20 puntos.

5. Programación o actividades que desarrolla la asociación fuera del municipio a lo largo del año: 7 puntos.

6. Objetivos generales y específicos que la asociación o entidad prevé para Zumaia: 7 puntos.

*8. Gastos subvencionables.*

Los gastos subvencionables serán los necesarios para la realización de las actividades objeto de subvención, siempre que se realicen en el plazo establecido en las presentes bases. A este respecto, en todo caso se estará a lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*9. Análisis y valoración de las solicitudes.*

Corresponden a la técnica de cultura los procedimientos recogidos en las bases generales, correspondientes a las solicitudes que se realicen en el ámbito de la acción cultural.

*10. Resolución.*

El responsable de la instrucción, previo informe técnico de la comisión de valoración del Departamento de Cultura, elaborará la propuesta de resolución.

El órgano municipal competente para adoptar la resolución es el Alcalde.

Todo ello en el plazo máximo de 2 meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Si transcurrido el citado plazo el Ayuntamiento no hubiera adoptado una decisión concreta sobre alguna de las solicitudes, la respuesta será negativa.

*11. Importe y forma de pago de la subvención.*

Importe.

El importe total de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas y entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la asociación beneficiaria.

En el caso de que el coste real del desarrollo de la programación o actividad sea inferior al presentado, la subvención concedida se minorará en el importe del gasto efectivo.

En el caso de que la cantidad percibida en concepto de subvención anual fuese superior a la subvención real definitiva, se procederá al reintegro de la diferencia.

Pago.

El abono de las subvenciones se realizará mediante transferencia bancaria en una cuenta de titularidad de la entidad beneficiaria.

Una vez comunicada la concesión de la subvención, se abonará el 70 % de la cantidad concedida.

El 30 % restante se abonará una vez finalizada la actividad y presentados en plazo la memoria y los justificantes de gasto de la subvención.

EK\CV GAO-I-2020-02518

Deialdiko xede diren ekintzak egiteko behar diren diru zenbatekoen ordainketa aurreratuak egitea baimen dezake alkate-udalburuak. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak 34. artikuluak egiten duen araupenaren arabera egingo dira aurrerapen horiek. Horrez gain, Udaleko dirulaguntzen ordenantza arautzaileak dioena izango da kontuan.

*12. Dirulaguntzen erabileraren justifikazioa.*

Dirulaguntza nola erabili den justifikatzeko oinarri espezifiko hauei dagozkien oinarri orokorren arabera egingo da, bai eta dirulaguntza deialdian jasotakoaren arabera ere.

Behin diruz lagundutako jarduera amaituta, ekintzen memoria eta frogagiriak aurkeztuko dira, eta betiere, horretarako azken eguna jarduera gauzatzen den urtearen hurrengo urtarrilaren 15a izango da.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko:

a) Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria xehakatua, euskaraz. Bertan adierazi beharko dira egindako jarduerak eta lortutako emaitzak.

b) Justifikazio memoria ekonomikoa, jatorrizko egiaztagiriez osatua.

— Aurkeztutako fakturen zerrenda zenbakitua + faktura guztiak. Betiere faktura hauek dagozkien zergak aplikatuta izan beharko dituzte.

— Fakturak ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.

— Diru-sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa. Diruz lagundu den jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehakatua, haien zenbatekoak eta jatorria adieraziz.

— Halakorik bada, aplikatu gabeko diru-gerakinen itzulerari dagokion ordainketa-agiria eta haiengandik eratorritako interesena.

c) Dokumentazio grafikoa (kartelak-egitarauak) edo ikus-entzunezkoa (halakorik bada).

Horrez gain, Udalak Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak bere 30. eta 31. artikuluetan egiten duen araupenaren arabera, beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko aukera izango du.

Salbuespen gisa, ordainketaren egiaztagiriak aurkezteko epearen luzapena eskatu ahal izango dute elkarteek, dirulaguntzari lotutako jarduerak egin ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa: 15 eguneko epea izango dute, dirulaguntza ordaintzen denetik ordainketa-egiaztagiria aurkezten den arte.

*13. Publizitatea.*

Oinarri hauen baitan emandako dirulaguntzen onuradunek jarduerak iragartzeko erabiltzen dituzten euskarri guztiak euskaraz edo ele bitan (euskara lehenetsita) izango dira.

Onuradunek adierazi egin behar dute beren egitarauak edo jardunak Zumaiako Udalaren dirulaguntza jaso duela: beharrezkoa izango da Udalaren logoa azaltzea jarduerak iragartzeko prestatzen dituzten kartel, egitarau, informazio eta hedabide guztietan.

*14. Araubidea.*

Deialdi honek aurreikusi gabeko alderdi guztietan, betetzekoa izango da Zumaiako Udalak eta haren Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2014ko irailaren 25ean argitaratua izan zena.

Zumaia, 2020ko ekainaren 3a.—Alkatea. (2518)

El Alcalde-Presidente podrá autorizar el pago anticipado de las cantidades necesarias para la realización de las actividades objeto de la convocatoria. Estos avances se realizarán de acuerdo con la regulación que realiza el artículo 34 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. Además, se tendrá en cuenta lo establecido en la ordenanza reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento.

*12. Justificación del uso de las subvenciones.*

La justificación de la aplicación de la subvención se realizará de acuerdo con las bases generales correspondientes a las presentes bases específicas, así como con lo recogido en la convocatoria de subvenciones.

Una vez finalizada la actividad subvencionada, se presentará la memoria y documentación justificativa de las actividades, y el último día de plazo será en todo caso el 15 de enero siguiente al año en que se desarrolle la actividad.

La justificación de la subvención se realizará mediante la presentación de la siguiente documentación:

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada, en euskera, con indicación de las actividades realizadas y los resultados obtenidos.

b) Memoria económica justificativa, compuesta por los documentos acreditativos originales.

— Relación numerada de las facturas presentadas + todas las facturas, que deberán estar sujetas a los impuestos correspondientes.

— Documentación acreditativa del pago de las facturas.

— Balance económico de ingresos y gastos. Relación detallada de otros ingresos o subvenciones destinados a financiar la actividad subvencionada, con indicación de su importe y procedencia.

— En su caso, documento de pago correspondiente al reintegro de remanentes pendientes de aplicación y de los intereses derivados de los mismos.

c) Documentación gráfica (carteles-programas) o audiovisual (en su caso).

Adicionalmente, el Ayuntamiento podrá solicitar los documentos que resulten necesarios, de acuerdo con la regulación que la Ley 38/2003, de Subvenciones, realiza en sus artículos 30 y 31.

Excepcionalmente, las asociaciones que lo deseen podrán solicitar una prórroga del plazo para presentar la documentación acreditativa del pago de las facturas, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención: podrán solicitar un plazo de 15 días, desde la realización del pago de la subvención a la presentación del justificante de pago.

*13. Publicidad.*

Los beneficiarios de las subvenciones concedidas en el marco de estas bases, realizarán toda la difusión de sus actividades, sea cual sea el soporte, en euskara, o en ambas lenguas oficiales, con preeminencia del euskara.

Los beneficiarios deberán hacer constar que su programa o actuación ha recibido subvención del Ayuntamiento de Zumaia, debiendo figurar el logo del Ayuntamiento en todos los carteles, programas, informaciones y medios de difusión que se utilicen para publicitar las actividades.

*14. Régimen.*

En todo lo no previsto en la presente convocatoria, será de aplicación la Ordenanza General Reguladora de la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Zumaia y sus Organismos Autónomos, publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 25 de septiembre de 2014.

Zumaia, a 3 de junio de 2020.—El alcalde. (2518)

EK\CV GAO-I-2020-02518

**Zumaiako Udala**

2020UDIR0002-T20/0035

## I. ERANSKINA / ANEXO I

## DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO ORRIA
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN

**Interesduna (elkartearen datuak):** Persona interesada (datos de la entidad):

| **Elkartearen izena** / Nombre de la entidad | | **IFK** / CIF | |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **Elkartearen egoitza** / Domicilio social | | **Herria** / Población | **PK** / CP |
| | | | |
| **Telefonoa** | **Faxa** | **E-maila** | |
| | | | |

**Ordezkaria (agiri honen aurkezlearen datuak):**
Representante (datos de la persona que presenta este documento):

| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos | **NAN-AIZ-IFK** / DNI-NIE-CIF |
|---|---|
| | |
| **Elkartean duen kargua** / Cargo que ocupa en la entidad | |
| | |

**Jakinarazpenak bidaltzeko datuak: /** Datos para envío de notificaciones:

| **Helbidea** / Domicilio | | **Herria** / Población | **PK** / CP |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **Telefonoa** | **Faxa** | **E-maila** | |
| | | | |

**Banketxea (dirulaguntza sartzeko): /** Entidad bancaria para ingreso de la subvención:

| **Banketxea** / Entidad bancaria | **Kontu korrontearen zk. (IBAN barne)**/ Número de cuenta (con IBAN) |
|---|---|
| | E S |

**Dirulaguntza eskaeraren datuak:** Datos de la petición de subvención:

| **Proiektu-jardueraren izena**<br>Denominación del proyecto-actividad | **Eskatzen den zenbatekoa**<br>Importe que se solicita |
|---|---|
| | |

**Foruen enparantza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Zumaiako Udala

2020UDIR0002-T20/0035

**Zumaiako Udalari baimena ematen diot hala behar denean eskabide honetan adierazitako datuak egiaztatzeko behar dituen frogatze-lanak egin ditzan, eta behar adina txosten eta datu eskuratu ditzan beste erakunde publiko zein pribatuetatik, finantza-erakundeak barne** / Autorizo al Ayuntamiento de Zumaia, cuando sea preciso, a realizar las comprobaciones pertinentes de los datos aportados en ésta solicitud, y a obtener cuantos informes y datos sean necesarios de otras instituciones o entidades públicas y privadas, incluidas las entidades financieras.

| | |
|---|---|
| ☐ **Bai** / Sí | ☐ **Ez** / No |

| | |
|---|---|
| ☐ **Nire erantzukizunpean adierazten dut nik ordezkatzen dudan elkartea ez dagoela sartuta dirulaguntzak lortzeko oinarri orokorretako 11. artikuluan aipatzen diren debeku arrazoietan.** | ☐ **Declaro** bajo mi responsabilidad que la entidad a la que represento no está incursa en los supuestos de prohibición para la obtención de subvenciones a las que se refiere el artículo 11 de las Bases Generales. |
| ☐ **Aditzera ematen dut, nire erantzunkizunpean, ordezkatzen dudan erakundea ez dagoela sartuta inolako administrazio- edo zigor-prozeduratan sexuagatiko diskriminazioa dela eta.**<br>**Bestalde, hitz ematen dut inor kanpoan uzten ez duen hizkera erabiliz egingo dela diruz lagundutako jarduerak sortzen duen komunikazio guztia eta komunikazio horretan erabilitako irudietan, bermatuko dela emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotipatu gabea, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunekoak, ezarritako betebeharra betetze aldera.** | ☐ **Declaro** bajo mi responsabilidad que la entidad a la que represento no se halla incursa en ningún procedimiento administrativo o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo.<br>Asimismo, me comprometo a realizar toda la comunicación generada por la actividad subvencionada en un lenguaje inclusivo y garantizar la presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres en las imágenes que se utilicen, según establece la Ley de Igualdad de Mujeres y Hombres 4/2005, de 18 de febrero. |
| **Espreski baimena ematen diot Zumaiako Udalari, hala behar denean, zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari eskatzeko beharrezkoak diren zerga datuak, idatzi honetan zehazten den dirulaguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla kreditatu, egiaztatu eta datuok eguneratu ditzan; baita, betiere adierazitako helburuko, edozein erakunderen edo administrazio publikoren datu baseetatik beste edozein datu pertsonal lortzeko ere.**<br>BAI ☐ EZ ☐ | Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Zumaia para recabar directamente del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa los datos tributarios necesarios para la acreditación, verificación y actualización, en su caso, del cumplimiento de todas las condiciones requeridas para la solicitud de subvención que se especifica en el presente escrito, así como cualquier otro dato de carácter personal que sea necesario para la finalidad mencionada, a obtener de las bases de datos de cualquier otro Organismo o Administración Pública.<br>SÍ ☐ NO ☐ |

**Zumaian,**
(**Eguna** / Fecha)

**Elkartearen zigilua** / Sello de la entidad

**Lehendakariak Ontzat Emana**
**(izen-abizenak eta NAN-AIZ adieraziz)**
Visto Bueno, el/la Presidente/a
(con nombre, apellidos y DNI-NIE)

**Foruen enparantza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
**www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus**

EK\CV GAO-I-2020-02518

Zumaiako Udala

2020UDIR0002-T20/0035

**II. ERANSKINA**/ANEXO II

**DIRULAGUNTZA ZUZENAK: PROIEKTUAREN DATUAK**
SUBVENCIONES DIRECTAS: DATOS DEL PROYECTO

| **Elkartearen izena** / Nombre de la entidad | **IFZ** / CIF |
|---|---|
| | |
| **Proiektu-jarduerаren izena** / Denominación del proyecto-actividad | |
| | |

**Aurrekontua (zer gastu eta diru sarrera espero diren; zer diru sarrera dituen erakundeak egitasmoa finantzatzeko; zenbat diru eskatu dien beste erakundeei):**

Presupuesto (concretar gastos e ingresos previstos. Especificar todos los ingresos de la entidad para el proyecto y los solicitados a otras administraciones):

| **Gastuak (azalpena)** / Gastos (concepto) | **Zenbatekoa (BEZ barne)**/ Importe (IVA incluido) |
|---|---|
| | |
| **Gastuak, guztira** / Total gastos | |
| **Sarrerak (nondik datozen)** / Ingresos (procedencia) | **Zenbatekoa (BEZ barne)** / Importe (IVA incluido) |
| | |
| **Sarrerak, guztira** / Total ingresos | |

Zumaian,
(**Eguna** / Fecha)

***Elkartearen zigilua** / Sello de la entidad*

**Ontzat emana, Lehendakaria**
**(izen-abizenak eta NAN-AIZ adieraziz)**
Visto Bueno, el/la Presidente/a
(con nombre, apellidos y DNI-NIE)

**Foruen enparantza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
**www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus**

EK\CV GAO-I-2020-02518

Zumaiako Udala

2020UDIR0002-T20/0035

**III. ERANSKINA** / ANEXO III

**DIRULAGUNTZAK: BESTE LAGUNTZA ESKABIDEEN AITORPENA**
SUBVENCIONES: DECLARACIÓN SOBRE OTRAS SOLICITUDES DE AYUDAS

## **Elkartearen datuak:** / Datos de la entidad:

| **Elkartearen izena** / Nombre de la entidad | | | **IFZ** / CIF |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **Elkartearen helbidea**/ Domicilio social | | **Herria** / Población | **PK** / CP |
| | | | |
| **Tel.** | **Faxa** / Fax | **Hel. elektronikoa** / E-mail | |
| | | | |

**Ordezkaria:** / Representante:

| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos | **NAN-AIZ- IFZ** / DNI-NIE-CIF |
|---|---|
| | |
| **Elkartean duen kargua** / Cargo que ocupa en la entidad | |
| | |

**Jarduera hauetarako eskatutako edo jasotako beste laguntzak (jaso badira, zenbatekoa azaldu):**
Otras ayudas solicitadas o recibidas para estas actividades (si se han recibido, especificar importe):

| **Administrazioa edo erakundea** / Administración o entidad | **Jasotako zenbatekoa** / Importe recibido |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| ☐ **Ez dugu jaso edo eskatu beste inongo laguntzarik** / No hemos recibido ni solicitado ninguna otra ayuda | |

**Nire erantzukizunpean goian azaldutako datuak egiazkoak direla adierazten dut.**

Declaro bajo mi responsabilidad que los datos arriba indicados son ciertos.

Zumaian,
(**Eguna** / Fecha)

**Elkartearen zigilua** / Sello de la entidad

**Ontzat emana, Lehendakaria**
**(izen-abizenak eta NAN-AIZ adieraziz)**
Visto Bueno, el/la Presidente/a
(con nombre, apellidos y DNI-NIE)

**Foruen enparantza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

EK\CV GAO-I-2020-02518

Zumaiako Udala

2020UDIR0002-T20/0035

**IV. ERANSKINA**/ANEXO IV
***Dirulaguntza lehen aldiz eskatzen dutenek edo kontu korrontea aldatu dutenek soilik**
*Rellenar solo si se solicita subvención por primera vez o se ha cambiado la cuenta corriente

| |
|---|
| **DATUEN ALTA/DOAKION HIRUGARRENARI**<br>ALTA DE TERCEROS/TERCERO INTERESADO |

| | | |
|---|---|---|
| **A** | **HIRUGARRENAREN EZAGUPENAERAK DATUAK**<br>DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO | |
| **NAN/AIZ/IFK**<br>DNI/NIE/CIF | | |
| **Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena**<br>Nombre y dos apellidos/Razón social | | |
| **Helbidea**<br>Domicilio | | |
| **Posta Kodea**<br>Código postal | **Herria**<br>Población | |
| **Lurraldea**<br>Provincia | | **Herrialdea**<br>País |

| | |
|---|---|
| **B** | **BANKUAREN DATUAK**<br>DATOS BANCARIOS |
| **BANKUA**<br>**BANCO** | |
| **AGENTZIA**<br>**AGENCIA** | |
| **KOD**<br>DC | **K/KORRONTEA**<br>C/CORRIENTE |
| **JABEA**<br>TITULAR | |
| **Oharra: Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.**<br>Nota: El titular de la cuenta tiene que ser el mismo que el tercero interesado. | |

| **C Bankuaren adostasuna**<br>Conforme banco | **D Doakion hirugarrenaren adostasuna**<br>Conforme tercero interesado | **E Udalaren onespena**<br>VºBº Ayuntamiento |
|---|---|---|
| Sinadura eta zigilua<br>Sello y firma | Sinadura eta zigilua<br>Sello y firma | Sinadura eta zigilua<br>Sello y firma |

umaian,
(**Eguna** / Fecha)

**Foruen enparantza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA**
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Zumaiako Udala

2020UDIR0002-T20/0035

**V. ERANSKINA** / ANEXO V

**Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntua noraino kontuan hartzen den proiektuan**

Grado de incorporación de la perspectiva de igualdad de mujeres y hombres en el proyecto

**Zumaiako Udalean, eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideetan, baloratuko da, *aurkeztutako eskaintzan eta diruz lagundutako proiektu edo jarduera, genero-ikuspegia txertatzea, oro har.***

De acuerdo con las Instrucciones para la implementación de acciones transversales de igualdad de mujeres y hombres en el Ayuntamiento de Zumaia y organismos dependientes del mismo, se *valorará de forma general: la integración de la perspectiva de género en la oferta presentada y en el proyecto o actividad subvencionada.*

## Elkarteari buruzko datuak: / Datos sobre la Asociación:

| | |
|---|---|
| **Elkartearen izena** / Nombre de la entidad | **IFK** / CIF |
| | |
| **Ordezkararien izen-abizenak** / Nombre y apellidos de la persona representante | **NAN-AIZ** / DNI-NIE |
| | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Elkartean duen kargua** / Cargo que ocupa en la entidad | **Sexua** / Sexo | | |
| | ☐ **Emakumezkoa** / Mujer | ☐ **Gizonezkoa** / Hombre | ☐ **Beste generoak**[1] / Otros géneros[1] |

| | |
|---|---|
| **Zuzendaritza Batzordea, sexuaren arabera** / Distribución por sexos de la Junta Directiva | **Lehendakaria** / Presidentea |
| **Emakumezkoak** / Mujeres %_____<br>**Gizonezkoak** / Hombres % _____<br>**Beste generoak**[1] / Otros géneros[1] % _____ | **Emakumezkoa** / Mujer ☐<br>**Gizonezkoa** / Hombre ☐<br>**Beste generoak**[1] / Otros géneros[1] ☐ |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Bazkide-kopurua** / Nº personas socias | **Bazkideak, sexuaren arabera** / Distribución por sexos de las personas socias | | |
| | **Gizonezkoak**/Hombres | **Emakumezkoak**/Mujeres | **Beste generoak**[1]/ Otros géneros[1] |

## Proiektuari buruzko datuak: /Datos sobre el proyecto:

| | | |
|---|---|---|
| **Jardueraren onuradunak, sexuaren arabera** / Distribución por sexos de las personas beneficiarias de la actividad | | |
| **Emakumezkoak** / Mujeres %____ | **Gizonezkoak**/Hombres %____ | **Beste generoak**[1] / Otros géneros[1] %____ |
| **Jarduerarako kontratatutako pertsonak, sexuaren arabera** / Distribución por sexos de las personas contratadas para la actividad | | |
| **Emakumezkoak** / Mujeres %____ | **Gizonezkoak** / Hombres %____ | **Beste generoak**[1] / Otros géneros[1] %____ |
| **Jardueran parte hartuko duten boluntarioak, sexuaren arabera**<br>Distribución por sexos del personal voluntario que participará en la actividad | | |
| **Emakumezkoak** / Mujeres %____ | **Gizonezkoak** / Hombres %____ | **Beste generoak**[1] / Otros géneros[1] %____ |

| | | |
|---|---|---|
| **Kontuan hartu al da emakumeek jasaten duten desberdintasun soziala? Horri aurre egiteko neurririk hartu al da?**<br>¿Se ha tenido en cuenta la desigualdad social que afecta a las mujeres y medidas para afrontarla? | | |
| • **Hasierako diagnostikoan** / En el diagnóstico de partida | ☐ **Bai** / Si | ☐ **Ez** / No |
| • **Proiektuaren helburuetan** / En los objetivos del proyecto | ☐ **Bai** / Si | ☐ **Ez** / No |
| • **Proposatutako jardueretan** / En las actividades propuestas | ☐ **Bai** / Si | ☐ Ez / No |
| • **Ebaluazioan** / En la evaluación | ☐ **Bai** / Si | ☐ Ez / No |
| ***Aurreikusi al da inolako neurririk proiektuan parte hartzen duten pertsonen bizitza pertsonal eta familiarra jarduerarekin uztartzeko?***<br>*¿Se prevé alguna medida para facilitar la conciliación de la vida personal y familiar de las personas participantes en el proyecto?* | | |
| ☐ **Bai** / Si | ☐ **Ez** / No | |

[1]**Intersexualak eta transexualak** / Intersexuales y transexuales

Foruen enparantza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

EK\CV GAO-I-2020-02518

Zumaiako Udala

2020UDIR0002-T20/0035

**VI. ERANSKINA** / ANEXO VI

**EUSKARAREN ERABILERA** / USO DEL EUSKERA

| **JARDUERAREN IZENA** / NOMBRE DE LA ACTIVIDAD: | | | |
|---|---|---|---|
| | **Euskaraz** | **Ele bitan**<br>Bilingüe | **Oharrak**<br>Notas |
| **Kartelak, esku-orriak…**<br>Carteles, folletos… | | | |
| **Sarrerak**<br>Entradas | | | |
| **Txostena, agiriak, memoria…**<br>Informe, documentación… | | | |
| **Aurkezpena**<br>Presentación | | | |
| **Megafonia (esataria eta musika)**<br>Megafonía (locución y música) | | | |
| **Besterik**<br>Otros | | | |

| **ELKARTEAREN OHIKO ERABILERA**/ USO HABITUAL DE LA ASOCIACIÓN: | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **Euskaraz** | **Ele bitan**<br>Bilingüe | **Gaztelaniaz**<br>Castellano | **Oharrak**<br>Notas |
| **Zuzendaritzako bilerak**<br>Reuniones de la directiva | | | | |
| **Urteko batzarrak**<br>Asambleas anuales | | | | |
| **Deialdiak eta agiriak**<br>Convocatoria y documentos | | | | |
| **Aktak eta memoriak**<br>Actas y memorias | | | | |
| **Webgunea eta sare sozialak**<br>Sitio web y redes sociales | | | | |
| **Besterik**<br>Otros | | | | |

| **Jarduera bakoitzean euskararen erabilera bermatzeko irizpideak baditu elkarteak? Zein?**<br>¿Tiene la asociación criterios para garantizar el uso del euskera en las actividades? ¿Cuáles? |
|---|
| |
| **Elkarteak parte hartzen du euskara bultzatzeko ekimenetan? Zertan?**<br>¿Participa la asociación en alguna iniciativa para fomentar el euskera? ¿En cuál? |
| |

Foruen enparantza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus